



218. zenbakia

MAIATZA 2022

# pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

## ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

### PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

### EMAILA

pulunpe@gmail.com

### ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Anuenatura eta Patxi Irurzun.

### KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

### TIRADA

1.700 ale

### INPRIMATEGIA

Gertu

### MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

### AZALEKO ARGAZKIA

Adin guztietako herritarrek egin zuten korrika, Gartzaronen. Baten batendako lehenengo korrika izan zen, momentuz, kotxean.

### LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira martxoaren 11an bidalia



## ZORIONTASUNA, EDERTASUNA ETA GERRA HOTZA (Hedoi Etxarte - Sortaldekoak)

“ Hori izan zen Gerra Hotza.  
Hori izan zen hogeigarrena.  
Gure mendea.  
Aingeru bat, pertsona soil bat,  
munstro bat.

Hil ala biziko gudu bat  
zoriontasunaren munstroaren  
eta edertasunaren  
munstroaren artean.

Guda pertsonal bat  
arma nuklearrez, B52z eta AK47z.  
Zoriontasuna: egunean  
sei kafesne  
azukre birfinduarekin,  
azukre zuriarekin.  
Edertasuna: kalorien kontrola,  
keinuen kontzientzia obsesiboa.

Gerra Hotza:  
Ameriketako Estatu  
Batuen eta Sobietar  
Errepublikaren arteko  
Batasunaren arteko  
guda. Artearen eta  
diseinuaren bidez.

Errealismoa ala espresionismo  
alkoholikoa.

Rakhmaninov ala Xostakovitx.

Gorki ala Txukovskaia.  
Gerra Hotza: errusiarren arteko  
fratrizidio artistiko bat izan zen,  
planeta gudu zelai hartuta.

Limonov ala Dovlatov.

Tsvetaieva ala Kollontai.

Trotsky ala Stalin.

Empire State ala  
Sobieten Jauregia.

King Kong ala Lenin.


Bacardi ala Cienfuegos.

Festa hotza: paradisia Lurrean.

Eki ala Mende.

Gure mendea.

Geurea. “



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



# Menopausia

## Zein elikagai dira bizitzako aro honetarako aproposak?

Pertsonaren arabera alda badaiteke ere, gutxi gora behera 45 urteetatik aurrera emakumeen bizitzetan gertatzen den aroa da menopausia. Momentu horretatik aurrera, emakumeek zenbait aldaketa fisiko nahiz psikologiko bizitzen dituzte, eta garai horretan osasunari laguntzeko badira zenbait elikagai apropos.

Espainiako estatuan menopausiaren inguruan egin diren zenbait ikerketek erakutsi dutenez, 45 urtetik gorako emakumeen gehiengoak menopausiak ekar ditzakeen aldaketa fisiko eta hormonalen inguraun kezka dituzte. Aldi berean, gehienak kontziente dira ohitura osasuntsuek garai honetan ere duten garrantziaz.

Arreta jarri behar zaion ohitura osasuntsu horietako bat da elikadurarena. Gomendagarria da bizitzako garai honetan elikadura aldaketa hormonalek markatutako behar berrietara egokitzea.

### Menopausiaren sintomak

Hormona femeninoen (estrogenoak) gutxitzeak eta desagertzeak zenbait sintoma dakartza berarekin:

- Hileroko irregularra izatea eta honen desagertzea
- Bat-bateko berotzeak
- Loaren nahasmendua
- Baginaren lehortasuna
- Aldaketa emozionalak
- Gorputzean aldaketak
- Ilea galtzea eta azazkalen ahultzea
- Kontzentratzeko arazoak eta memoria galerak
- Azal lehorra izatea
- Buruko eta bularreko mina
- Aurpegian ilea ugaritzea
- Osteoporosisa eta hezurretako arazoak

### Lagungarriak diren elikagai batzuk...

• **Esnea eta esnekiak:** kaltzio kopuruan aldaketak dakartza menopausiak, eta D bitamina duten produktuok hezurretarako mesedegarri izanen dira

• **Zereal integralak:** neke sentsazioa ohikoa da bizitzako etapa honetan, beraz, absortzio moteleko karbohidratoek beharrezko energia ematen dute

• **Oliba olio birjina estra:** menopausian zehar kolesterol kopuruak handitu egiten dira, eta hori ekiditeko, beharrezkoa da dieta kardiosasuntsu bat eramatea, gantz osasuntsuak hartuz (oliba olio birjina estra, fruitu lehorrak, aguakatea) eta saturatuak ekidinez

• **Likidoen kontsumoa ugaritu:** egunean 1,5 litro inguru edatea gomendatzen da

• **Orburu eta zainzuriak:** likidoen atxikipena (retencion de liquidos) ohiko sintoma bat da menopausia garaian, eta hori gutxitzeko, gatzaren kontsumoa gutxitzea eta orburu eta zainzuriaren antzeko barazkiak handitzea gomendagarria da.

“  
Gomendagarria da menopausia garaian elikadura egokitzea  
”





# Errefuxiatuak

## Hemezortzi errefuxiatu ukrainiar hartu dituzte Ziaurritzen

Lorea Peñalver herritarraren laguntzari esker iritsi ziren Odiatar. Berak Saxa hartzen zuen etxean, hark bost urte zituenetik. Orain, Saxaren ama eta anai-arrebak etorri dira, haien herriko hainbat auzokideekin. Haiek iristerako etxe bat konponduta, janaria, jostailuak eta beste hainbat gauza bilduta zituzten; Bailarako eta inguruko herritarrak izugarrizko erantzuna eskaini baitzuten.

Martxoaren erdialdean iritsi ziren errefuxiatuak, Ukrainiatik Ziaurritza. Osotara, hemezortzi pertsona: hiru ama eta hamabost adin txikiko, zaharrenak hamazazpi urte ditu eta gazteenak bi. Izan ere, Saxaren amarekin (Zhanna) eta zazpi anai-arrebarekin, auzokideak ziren beste bi ama eta haien seme-alabak etorri ziren. Baita umezurtz den beste mutiko bat ere. Orain bi ama eta hamar adin txikiko dira. Saxak hemezortzi urte ditu, eta zerbitzu militarra beteta, aitarekin eta anaiarekin gelditu da ejerzitoarekin.

“**Jon Larretxea:**  
**Nik ez nuen espero laguntzera hainbeste jende etortzea!**”

Etorritakoez aparte, ahizpa zaharra urteak daramatza lruñean, bertan ikasi eta gelditu baitzen.

Lorea Peñalverrek, Ziaurritzko auzokideak, Saxak hamasei urte bete zituen arte hartu zuen bere etxean, eta, ondoren, kontaktua mantendu dute: “Gerra hasi eta bi egunetara deitu zidan bere familia laguntzeko, han ezin zuten bizi. Irina ere, Saxaren arreba zaharra, lruñean bizi dena, oso kezkatuta zegoen. Ez genuen bitan pentsatu, Irinari esan nion, ‘lehenengo gauza haiek ekartzea da’, ez zitzaidan ezta burura etorri non sartuko genituen”. Eta, ekarri, ekarri zituzten. Zailtasunak zailtasun, hainbat pertsona eta autobusekin saiatu eta bertan behera gelditu ondoren, azkenean, Noaingo elkarte baten laguntzari esker iritsi ziren.

### 80tik gorako lan taldea

Errefuxiatuak iritsi eta, ezustekoan, herritar eta lagun batek, Maria Zilbeti erosi berri zuen etxea eskaini zuen. “Bere amaren ondoko etxea erosi berri zuela esan zidan. Erronka jarri genion geure buruari eta Mariaren laguntzarekin mugitzen hasi ginen eta egun gutxitan buelta eman zitzaion etxeari. Eta oso polita izan zen, oso oso polita”.

Osotara, 80 pertsona baino gehiagok lagundu zuten, Odietako gainontzeko herrietatik, Ultzamatik eta baita Basaburutik ere etorritakoak, besteak beste. Jon Larretxea Ziaurritzko auzokidea izan zen haien artean: “Zerrenda bat egin nuen etxean egon ziren guztiekin. Badira 83 pertsona baterako edo besterako etxe horretan sartu direnak. Etxean eta kontzejuetxean, lanak egiten eta ekartzen zen arropa antolatzen. Nik ez nuen horrenbeste jende etortzea espero! Beno, ez nik, ez etxea utzi zuenak ez inork! Saxa udan ekartzen zuen Loreak, bere familiakoa bezala zen eta horregatik uste genuen herrikoak eta gertuko batzuk bilduko zirela, baina egia esan, ez nuen horrelako borondaterik espero!”

### Lau eguneko lanak

Ostegunarekin hasi eta igandearekin bukatu zituzten



Herriko haurrak eta Ukrainiatik etorritakoak jolasean



▼ Herritarrak lanean



lanak, orduan iritsi baitzeren lehenengo errefuxiatuak. Jon Larretxea: "Ukraniarrek etorri baino aste bat lehenago ireki zuen hiru urtez itxita izandako etxea. Logelak ere prestatu behar ziren. Uste baino lan gehiago behar zen eta horregatik deialdi bat egin zen. Igeltseroak segidan jarri ziren nirekin kontaktuan".

Lanerako bakarrik ez, behar zen materiala, arropa eta janaria lortzeko ere izugarritzko

laguntza izan zuten. Larretxea: "Nik telefonoan jartzen nuen '18 pertsona etorri dira eta somierrak behar ditugu', eta, ordubetera somierrak baziren; gero, mantak eskatzen zenituen eta berehala iristen ziren".

### Eskolan, pozik

Instituzioei dagokionez laguntza gutxi jaso dutela esan digu Lorea Peñalverrek: "Nafarroako Gobernuak proposatzen duen

“ Lorea Peñalver:  
Egun gutxitan eman zitzaien buelta etxeari. Oso polita izan zen ”

gauza bakarra da, nirekin edo ni gabe, ez dago erdibiderik. Baina Espainiako edozein lekutara eraman zitzaketek, eta guk hori ez genuen nahi". Enpresa pribatuen donazioak jasotzeko elkarte bat sortzen ari dira, baina horretarako hilabeteak behar dituzte. Bitartean, pozik da, ordea, Odietako Udalak eta Larraintzako ikastetxeak eskaini dien laguntzarengatik.

Eskolako zuzendaritzatik ere adierazi digutenez, haiek ez dute laguntza gehigarririk jaso: "Baldintzak ez genituen betetzen. Ikastetxeek ekonomikoki behartsuak diren familientzat laguntza bat jasotzen dute urtero, eta, aurtengoa, ikasle guztien artean banatuko dugu". Bestela, dena den, pozik daude: "Txikienak, haur hezkuntzako egokitzapenean egiten den bezala, pixkanaka hasi ziren; Saio gutxi batzuetara etorri ziren eta egunek aurrera egin ahala, egun osoa. Ikasteko gogo handia dute eta batzuk oso azkar ikasten ari dira. Irakasleentzat ere ez da egoera erraza, baina denek borondate oso ona erakutsi dute, inplikazio handia izan dute. Azkenik, gure ikasleek gogo handiz hartu dituzte eta oso pozik daude ikaskide berriekin".

**Lana bilatzea da orain kezka. Bi emakumeetako bat bila ari da, baina Ziaurritzik gertu behar du, bizikletaz mugitzen delako. Norbaitek interesa balu, jarri gurekin kontaktuan.**



▲ Zhanna, seme-alabekin. Eskolatik iritsi berriak.

## Maddiren erlojua, egokitua

Maddik zortzi urte betetzen zituen egun hartan eta ilusioz **gainezka** zegoen. Puzzle, liburu, **kitaborro** eta beste zenbait **opariren** artean, Londresen lan egiten zuen osaba **aitajaunaren** paketetxo bat ere iritsi zitzaion.

Ireki zuen paketetxoa eta telebistan anuntziatzen dituzten kuartzozko **ordulari** polit horietako bat ikusi zuen bertan. Eta osabak ingeles letraz idatzitako tarjetatxo bat:

*Maddi maite: Greenwich-ek baino zehatzago emango dizu ordua. Ikusiko duzu! Ah, eta zorionak! Uda arte. Musu bakar bat, baina haundi-haundia.*

Berehala ahaztu zen Maddi puzzle, liburu eta kitaborroiez! Erlojua eskumuturrean jantzi eta han ibili zen etxeko guztiei bere erlojua erakusten eta erakusten.

Orduan, zortzi urte bete zituenetik, gauza harrigarriak gertatzen hasi zitzaizkion Maddiri: egunsentian afaldu nahi izaten zuen, postretik hasi nahi izaten zituen bazkariak, «konta hamar arte» andereñoak, eta «hamar, bederatziz, zortzi...» Maddik, dena alderantziz, esaldiak ere alderantziz esaten hasi zen arte:

- jama,nonugE
- Zer esaten ari zara?
- jnonugE

Diren eta ez diren espezialista guztiak ezagutzen zituen Maddiren amak eta han eraman zuen alaba espezialista guztiengana. Begiratu zioten **mingaina** behetik eta goitik, ezkerretik eta eskuinetik, baina ez zioten ezer **bitxirik** aurkitzen; begiratu zioten eztarria eta ezta ezertxo ere.

Eraman zuten okulistarengana ere, begiratu zizkioten begiak, baina ez zioten ezer txarrik aurkitu.

Begiratu zizkioten begiratu beharreko guztiak, baina alferrik. **Sendagileek** ez zioten ezertxo ere aurkitzen.

Hala ere, begien bistan zegoen Maddiri zerbait harrigarria gertatzen zitzaiola. Aspaldian ikasiak zituen gauzak ahaztu egin zitzaizkion. Ahaztu egin zitzaion irakurtzea, ahaztu **batuketak** egitea eta ohean pixa egiten ere hasi zen, zenbait hortz desagertu zitzaion, txikitzen, txikitzen, txikitzen joan zen, txupetea eskatu zuen... Maddiren gurasoak guztiz harriturik zeuden. Telebistatik ere etorri ziren Maddiren kasu harriagarriari buruz programa luze bat egitera.

- Hazi beharrean txikitzen ari zaigu! -zioen aitak-.
- Martxa honetan **sehaskara** eta sehaskatik nire sabelera joanen da. Baina ni ez nago trote horietarako. Hau da hau martxa! -zioen benetan kezkatu rik amak-.

Eta hain txikia zenez Maddi eta erlojua eskumuturrean dantzan bezala ari zitzaionez, kendu zioten gurasoek





erlojua Maddiri eta Maddi normaltzen hasi zen berriro, hazten, ongi hitz egiten, denetik eta ohizko orduetan jaten, behar den garaian eta tokian pixa egiten.

- Zer gauza! -esan zuen aitak-. Zer gertatu ote zaio? Zer arraio ote du erloju **madarikatu** horrek?

Eta erlojua eraman zuten oraingoan sendagilearengana, alergiaren bat sortzen ote zuen jakin nahirik...

- Alergiaren bat? Ez, ez dut uste. Kuartzoak ez du alergiarik sortzen. Ez dut nik behintzat behin ere horrelakorik entzun.

Kimikari adiskide batengana eraman zuten ondoren erlojua, ea kuartzoa benetakoa ote zen jakiteko.

- Kuartzoa benetakoa? Benetakoa ez balitz, ez litzateke kuartzoa, ezta? -esan zien **errukiturik** bezala kimikari lagunak-.

Erlojariarengana eraman zuten azkenean erlojua. Guk ez dakigu zergatik ez zuten Maddiren gurasoek horrela jokatu hasieratik. Erloju bat nora arraio eraman behar ote da erlojariarengana ez bada?

Eta erlojariak:

- A ze erloju bitxia! Non erosi duzue? Ez nuen behin ere horrelako erlojurik ikusi.

- Zer bada?

- Eskuin aldera mugitu beharrean, ezkerrera mugitzen da. Atzeraka. **Karramarroak** bezala.



**Andu Lertxundi**

**Hiztegia**

**Ginezka:** desbordado. Ilusioz gainezka: llena de ilusión.

**Kitaborroi:** goma de borrar

**Opari:** regalo

**Aitajauna:** padrino

**Ordulari:** erlojua, reloj

**Mingaina:** lengua

**Bitxia:** raro

**Sendagile:** medikua, médico

**Batuketa:** suma

**Sehaska:** cuna

**Madarikatu:** maldito

**Errukitu:** compadecer



**TXAKUR  
JANARIA**

**CARLOS 660781595  
Pili 650206699**





## Abian da berriz Mendialdeko Azoka Ibiltaria

Aurreko urteetako arrakastaren ondoren, bueltan da berriz Mendialdeko Azoka Ibiltaria. Lehen azokak Arriben izan behar zuen apirilaren 24an, baina eguraldi txarra medio, Atallun egin behar izan zuten azkenean. Lehenengo haren ondotik etorriko dira beste zortzi azokak, eskualde desberdinak igaroz. Tartean, Imotzen, Basaburuan eta Atetzen ere izanen da azoka ibiltaria.

Data hauetan izanen dira aurtengo azokak, herriz herri:

- **Apirilak 24, Arribe (Araitz)**
- **Maiatzak 8, Lekunberri**
- **Maiatzak 15, Gorriti (Larraun)**
  - **Ekainak 5, Goizueta**
  - **Ekainak 19, Leitza**
- **Uztailak 2, Latasa (Imotz)**
  - **Uztailak 24, Basaburua**
  - **Abuztuak 14, Areso**
- **Irailak 4, Beuntza (Atetz)**

Azokako postuei dagokionez, elikagaien eta artisauen postuak izanen dira aurtengoan ere. Arrautzak, gazta, jogurta, mamia, hestebeteak, ezti, marmelada, garaiko barazkiak, sagar zukua, garagardoa, sagardoa, taloa, txokolata, fruitu lehorrak, pateak... etxerako erosketa osorik egiteko aukera izanen da. Artisauen artean ere, denetik izanen da: xaboiak, larrua, kosmetika, zapatak, bitxiak...



▲ Iazko azoka, Betelun

## Pulunpe, irratia eta amezti.eus

Gure produktuak hobetzen saiatzen gara eta berrikuntzak ere noizbehinka sartzen ditugu. Eguneratu nahi izaten ditugu gauzak.

Oraingoan Notarioen etxeak deitu 4 artikulua atera ditugu KONTU ZAHARRAK sailean, numeroz numero, eta Pulunpen ateratzen ditugun testuez at, denei sartu diegu AUDIO bat, Idatzitakoa osatzeko eta hedatzeko beste kontu batzuekin (Beste bi artikulua ere aterako ditugu)

Euskara estandarra ibili dugu, baina aldaketa batzuk sartuz:

-Hemengo fonetikako ezaugarri batzuk sartu ditugu: ogie, tuntune, alorrean beharrean alorrian edo eskuan beharrean eskun.

-Hemengo azentua gorde dugu (Imozkoa)

-Beste xehetasun batzuk ere sartzen ahalegindu gara: Ultzamakoa baldin bada, erran, bertze, yarri... eta

horrelako zenbait xehetasun. Eta Basaburukoa edo Imozko baldin bada, jarri, esan, beste... eta horrela.

Hori entzun ahal izateko, bi bide dituzu:

1.-amezti.eus gure agerkari digitalean sartu eta entzun.

2.-Bigarren modua: Pulunpen agertuko den QR gainean klikatu zure telefonoa eta entzun.

Hemengo euskara naturala gordetzea on genuke. Bai, estandarra eta hemengoa ez daude elkarren kontra. Hemengoa ez genuke galdu behar inola ere.

[ASPALDIKO KONTUAK]  
Suarbeko notarioak edo eskirauak  
Amezti.eus 2022-04-12 19:07 Gizartea  
Ultzama,  
Suarbeko Etxebertzeko notarioen informazio gehiago. Beuntzan





## Haur eskoletako langileak, greban

Apirilean bozkaketa egin zuten Nafarroako haur eskoletan eta gehiengoak 0-3 Plataformatik aldarrikatzen zuten greba babestu zuen. Horrela, greban izan dira maiatzaren 2tik aurrera, baita eskualdeko Ttikiena (Jauntsarats, Basaburua) eta Xinbili Xanbala (Iraizotz, Ultzama) haur eskoletan ere, egun batzuk ixtearekin batera, sinadurak biltzen izan dira.

Nafarroako haur eskoletako langileek eta 0-3 Plataformatik urteetan salatu dutenez, gure erkidegoan ez dira zerbitzu duin bat eskaintzeko baldintzak ematen. Egoera, batez ere, ratioetan islatzen da. Izan ere, Nafarroan, langile bakoitzari dagozkion haurren kopurua Europako herrialde batzuen bikoitza da. Lan bikoitza, baina soldata, ordea, bajuagoa. Euskal Autonomi Erkidegoan 1.800 euroko ordainsaria jasotzen badute, Nafarroan ez dira 1.300 euroko soldatara iristen,

hamabi pagatan. Gehiago jakiteko, aurreko Pulunpeko erreportajearen irakurri dezakezue informazio guztia.



## Izarpen gustu guztientzako aukerak ditugu EGUNERO!!!

Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA

*Hamarretakoak: Menudikoak, Txerri hankak, Tripakiak, Ajoarriero, Arrautzak...*

*Bermuta: Etorri gure pintxoz beteriko barraz gozatzera eta dastatu gure etxeko frito berriak.*

*Eguneko Menua: Etxeko janaria egunero.*



*Merenduak: Txokolate beroa txurroekin, etxeko tartak, bizkotxoak eta pintxoak.*

*Ostegunero: Pintxo-pote giro oberenean.*

*Asteburuak:*

*Asteburuko Menu berezia km·0 eta karta.*



CAMPING - KANPINA

**IZARPE**

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA





Iritzia



## Onintza Enbeita

Berria

### Marra lausoak

2022ko apirilak 27, berria

Lehertu arte entzun dut zein garrantzitsua izan zen Ukrainako presidente Zelenskik bere herrialdearen kontrako sarraskia eta Gernikakoa konparatu izana. Barrua erretzen dit. Ukrainatik ihesi doazen herritarrek hori esatea zilegi da, baina Zelenskik berak agintzen duen gobernuak suntsitu du behin eta berriro Donbass ingurua. Iruditzen zait aurpegi gogorra behar duela, bere ejerzittoa faxista deklaratu betea duenak, faxistek egindako sarraskiekin hunkidura bilatzeko. Ez dakit haren ahotan aipatzeko izenik egokiena Gernika ote den, baina horrekin nahikoa ez banu bezala iritsi da Espainiako Gobernuaren adierazpena: 85 urte igaro eta gero, egindako mina onartu egin dute. Hutsa baino gehiago dela esango du askok, baina hutsak min gutxiago egiten du adarra jotzeak baino.

Gernika erretzea ez zen ekintza bakana izan: euskaldunei lezioa eman nahi izan zien Mola jeneralak. Indarra, boterea eta zertarako gai ziren erakutsi zuten, eta haien ondorengoek agintzen jarraitzen dute; eta haiek egina loriatzen dutenek ez dute biktimarik mintzen, antza. Orduan, azaldu diezadala ni baino argiagoa den norbaitek zer balio duen adierazpen horrek. Utz diezaiotela Gernikaren izena erabiltzeari. Bai, behintzat, faxismoaren eta defendatzen dutenaren arteko marra hain lausoa den artean.

## Langile bila, Ultzaman

Iraizozko esne behi ukuilu batean langile bila ari dira. Nahiago dute ingurukoa bada, eta, arduratsua, bere lanean fina eta talde-lanean lan egiteko gaitasuna ere hobetsiko dituzte. interesa balu, **deitu: 690 64 35 14 telefonora.**



Ana Galarren bineta.  
Gasoil





## Jubilatuen elkartearen ere, pixkanaka normaltasunerantz

Denok Bat jubilatuen elkartearen aurten poliki- poliki bere ohiturazko aktibitateak egiten hasi da. Horien berri emanen dizuegu, Pulunpe eskaintzen digun txoko honetatik.

Aurtengoan jokatu da udaberriko MUS txapelketa, Larraintzarko Bentan, artxoaren hasieran iazko txapelketari bukaera eman zitzaion azken partidak jokatu, eta 18an hasi aurtengoa. Apirilaren 27ra arte 14 bikotek jokatu dute, liga moduan, denek denek kontra, eta txiko irabazi eta galduak kontatuz hauek izan dira lehen hiru bikoteak:

**Txapeldunak:** Asensio Alsua Huarte eta Migel Martikorena Lasarte, Igoakoak.

**Bigarrenak:** Jose Manuel Yaben Mariñelarena eta Jose M<sup>a</sup> Iraizotz Rekalde, Egillorrekoa eta Gaskuekoa.

**Hirugarrenak:** Jesus Ariztegi Mariezkurrena eta Jose Domingo Cilveti, Ziaurrizkoak.

Martxoaren 4an egin zen urteroko Batzar Orokorra non 2021eko kontuak ikusi eta onartu ziren.

Urte hasieran 332 bazkide ginen elkartearen: 176 Ultzaman, 68 Basaburuan, 28 Anuen, 25 Odietan, 19 Lantzen eta 16 Atetzen.



▲ Bigarrenak pozez kantari!!

Batzarrean aurtengo plangintzaz ere hitz egin zen, eta hainbat bidaia prestatzeko akordioa egin genuen: Gasteiza, Valdezarayra, Hondarribira, Zugarramurdira eta Arizkuna. Egun batekoak izanen dira horiek; eta aste bateko bidaiak antolatuko dira Madridera, Toledora eta Parisa.

Junta kide bi aldatu dira, Benito Alberro Goñik eta Leonzio Huarte Alsua hartu zituzten Mari Luz Iraolak eta Felix Gurbindok zuzendaritzan utzi zituzten karguak.

Hainbat tailer antolatzea ere erabaki zen gai hauei buruzkoak: Bizi testamentua, herentzia, memoria, begien ariketak eta trebetasun digitalak.

Osasun arloan Yoga eta podologoaren zerbitzuarekin jarraitzea eta martxa nordikoaren sei saioko ikastaroa egitea ere erabaki zen.

Horietako batzuk eginak daude, Lizarrara bidaia esaterako, non ia 80 bazkidek egun ederra pasa zuten, ostegunetako azoka eta kontserba fabrika ikusiz, goizez, Iratxe jatetxean bazkaria egin aurretik.

Prestatu zen Madrid-Toledo 5 eguneko bidaia baina bertan bera utzi zen nahiko jende ez zelakoz apuntatu bidaia egin ahal izateko. Penaz oraindik egoerak eragin handia duelakoz.

Baditugu gauza gehiago kontatzeko, apirileko festa tartean, baina hurrengorako utziko ditugu, bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



**Denok Bat  
Jubilatu Elkartearen**



▲ Hirugarrenak lehenengoei txapela ematerakoan

## Aprilaren 5ean igaro zuen eskualdea

Almandoztik heldu zen, Arraitzerako bidean, eta Alkotz, Iraizotz, Larraintzar, Auza, Erbiti, Gartzaron, Jauntsarats eta Beruete igaro zituen. 30 kilometro horietan 44 erakundek zituzten kilometroak erosiak; herri talde, kontzeju, udal nahiz enpresak tartean. Furgonetatik Leire Etxeberría iraziozarrak animatu zituen lasterkariak.



Adin guztietako herritarrek hartu zuten lekukoa ▲



Apeztegi berriko tarbenak hartutako kilometroan ▲



Atetzek hartutako kilometroa, Ilarregirako bidean ▲



Aizarozko herriak hartutako kilometroan, Edurne Kochekek darama lekukoa ▲



Aritzu ▲



Basaburuko udaletxeko langileak ▲



Aldapan behera edo aldapan gora, beti pozik ▲



Benta Miguelen parean, Itziar Mariazkurrenak darama lekukoa ▲



Berute izan zen Korrikak gure eskualdean igaro zuen azken herria



Imotzek hartutako kilometroa, aldapan gora, Berueterako bidean



Lizasoko kontzejua



Berute izan zen Korrikak gure eskualdean igaro zuen azken herria



Iraizotzen sartzen



Ttikiena haur eskolak eta oi hanzabal eskolak hartutako kilometroan, Jauntsaratsen



Gazteak



Eguraldi ederra egin du eta Ultzamaldeko irudi ederrak utzi dizkigu Korrikak



Larraitzarren batu zen jende gehien

## Hamar urte Mexikoko doinuak Basaburutik barna zabaltzen

2011ko udan hasi zen istorioa. Aizarozko jai batzordean herriko festak antolatzen zebiltzala, diru zatirik handiena kanpoko musika taldeei ordaintzen erabiltzen zutela ohartu ziren Eneko lurramendi 'Tinto' eta beste zenbait kide. Arazo horrek, baina, aterabide erraza zuen: zergatik ez Aizarozko herritar batzuen artean zuzeneko kontzertu bat prestatu? Galdera hori izan zen, nolabait, Mexikortxo banda sortzeko abiapuntua

"2011ko uda hartan Tinto etorri zitzaidan galdetuz ea gitarrarekin hiru akorde jotzen eta kantatzen ba ote nekien, eta nik baietz! Herri bazkaria bukatutakoan, kafean, kantatzea zen ideia, 10 edo 12 abesti... baina gerora, kontua zertxobait liatu zen". Horrela gogoratzen ditu Mexikortxo bandaren hastapenak losu Jauregi taldekideak, umorez. Besterik gabe, festetarako kontzertutxo bat prestatzea zen haien hasierako ideia, baina ia konturatu gabe, gehiagora joan zen kontua.

### Aizarozko neguko festetan, estreinaldia

Abenduaren 26an igo ziren estreinakoz bandako lehen kideak eskenatoki batera, herrian bertan. "Herriko jendearekin entseguak egin genituen lehen kontzertu hartarako, eta gainera, kolaborazioak ere izan genituen, herriko jende asko atera zen kantaren bat abestera", dio. Lehenengo agerraldi hartan banda %100 aizaroztarra izan zen: lurramendi eta Jauregiz gain, Txetxu Collado, Patxi Miranda eta

Koldo Ugarte izan ziren taldekideak. "Denontzat musika talde batean parte hartzen genuen lehenengo aldia izan zen, eta berez egun horretarako bakarrik elkartu ginen, baina hain ongi pasa genuen, pentsatu genuela agian segitu genezakeela", azaldu du Tintok.

Musika estilo gisa korridoak zergatik aukeratu zituzten galdetuta, hauxe erantzun digute bandako kideek: "Alde batetik, Euskal Herrian oso ezagunak direlako, belaunaldiz belaunaldi pasatzen joan direnak. Nik baditut 12 urteko ikasleak guk kantatzen ditugun kanta ezagutzen dituztenak, eta hori fenomeno bitxia da", dio Tintok. Horrez gain, beste bi kontu ere aipatu gehitu ditu, erdi barrez: "Tira, eta jotzeko ere errazena hori zen, eta mozorrotzeko eta parranda girorako ere oso egokia da". Hasierako faseko Mexikortxo bandak hainbat kontzertu egin zituen, guretik kanpo ere bai batzuk, Urruñan eta Labianon, esaterako.

### Bigarren fasea, Aizaroztik Basaburura hedatuz

2013 aldean, hasierako zenbait taldekidek proiektua uztea erabaki zuten, eta taldekide berriak batu zitzaizkien Tinto eta Josuri: Itsasoko Jabier Azpikotxe eta Udabeko Patxi Biurrarena. "Horiek musikariak





ziren, nolabait. Patxi musika eskolan bateria ikasten ari zen, eta Jabier ere Itsasoko txarangarekin tronpeta jotzen aritua zen”, dio Tintok. Horrela, bada, taldekide berriekin eta musikalki pauso bat aurrera emanda, Basaburuan barna mugitzen hasi zen banda. “Hori ez zen afari baterako katxondeoa, astean entseguak egiten hasi ginen eta kanta berriak ere probatzen”.

Lau bat urte iraun zuen bandaren bigarren fase horrek, 2017 inguru arte. “Etapas horretan hemen inguruan aritu ginen jotzen batez ere, bi kide berriek inguruko jende asko ezagutzen baitzuten eta horrela iritsi ginen Udabera, Beramendira, Basaburuko egunera, Ilarregira, Gerendiaina...”. Bigarren aldi honetan ere ez ziren gure eskualdera mugatu, dena den. Tuteran izan ziren Euskal Herriko Mus Txapelketako finalean, Iruñeko Donibane auzoan ere jo zuten, Altsasun... “Pentsa, Euskadi Irratiko estudioetan ere izan ginen!”, kontatzen dute kideek. Nolabait, ezagun egiten hasi ziren bigarren aldi hartan. Baina 2017an aro haren amaiera iritsi zen. Izan ere, kanpora geroz eta gehiago mugitzen hasi ziren horretan, taldeko bi kide berriek uztea erabaki zuten.

### Mexikortxo 'birsortua'

Horrela iritsi zen Mexikortxo bandaren hirugarren aldia, taldearen 'birfundazio' modukoa izan zena eta gaur egun oraindik aktiboan jarraitzen duena. Urruñako Pello batu zitzaizen lurramendiri eta Jauregiri baterian. “Pellok bazuen bateria bat, han joan ginen Urruñara, eta ikusi genuen atabal bat eta baketa bat, horixe zela bere bateria!”, dio Jauregik barrez. Txalapartaria izaki, erritmoa bazuen urruñarrak, eta aurreko bi kideen antzera, “alproja” xamarra ere badela diote... taldeko profilarakin bete-betean egiten zuen bat, beraz.



▲ Mexikortxoren hasiera, 2011n Aizarotzen

“Hirugarren garai honetan ere dezente ibili gara hortik: Munitibarren, Lekeitio, Bilbon, Donostiako aste nagusian, Lleidan...”. Harrotasunez diote 2019an, uda berean, Donostiako, Iruñeko eta Bilboko aste nagusietan jo zutela. “Ez dakit nik talde askok esan ote dezaketen hori!”, diote barrez.

**Tinto:**  
 “ Fenomeno bitxia da Euskal Herrian korridoena. Belaunaldiz belaunaldi pasatu dira ”

### 10. urteurren festa

2021eko abenduaren 26an festa egun berezia zuten prestatua Mexikortxotarrek Aizarotzen, 10. urteurrena behar bezala ospatzeko, bidelagun izandako guztiekin batera. Koronabirusak ez zien egun hartan ospatzen utzi azkenean, eta horregatik, hilabete batzuetako atzerapenarekin iritsi zen ospakizun festa. Apirilaren 15ean antolatu zuten ekimena: bokatada eta kontzertua izan zituzten, eta DJ Bullek luzatu zuen ondoren gaua. Mexikortxoren hamargarrena ospatuta, datozen urteetan beste zenbait urteurren izanen dira: Kubakortxo, Runbakortxo... Izan ere, Mexikortxoren lehen agerraldi horren ondorengo urteetan, herriko festetan beste musika estilo batzuk hartuta kontzertua eskaintzen jarraitu zuten kideek.



▲ Bigarren faseko kideak, 2017an Tuteran, EHko Mus Txapelketako finalean







### ***Instrumentuak eta ekipoak konpontzeko eta sortzeko tailerra, Ultzaman***

Musika tresnak eta soinu ekipoak konpontzeko eta diseinatzeko tailerra da Larra Soinu Tresnak. 2020an zabaldu zuen proiektua Iñaki Larrayoz Arano ultzamarrak, bere jaioterrian, Larraintzarren. Geroztik, ehunka konponketa eta moldaketa egin ditu, gitarretan, baxuetan, anplifikagailuetan eta bestelakoetan; bereziki, Bera inguruko eta Iruñerriko musikariendako. 2021. urte bukaeran, gainera, grabaketa estudioa ere estreinatu zuen eta bi talde grabatu ditu honezkerok.

Txikitatik buruan zebilkien ideia gauzatu du, azkenean, Iñaki Larrayoz ultzamarrak: estudio ekipoak, musika aparatuak eta tresnak konpontzea, eta horiei bigarren bitzita bat ematea. "Beti gustatu izan zait musika, eta baita katxarroak ere. Zurgindegri baten gainean bizitzeak ere eragina izan du, egurrekin harreman estua izan dut. Gainera, nire aita elektrikaria da eta berarekin egin eta ikasi ditut gauza asko".

Ingeniaritza ikasi zuen eta hamar urtez aerosorgailuen munduan egin du lan. Baina, ez zuen asetzen: "Aurreko lanetan nengoen bitartean ere beti irakurri izan ditut bestelako gauzak eta muntatu izan ditut niretzako pedalak. Nolabait, ideia hor egon da beti. Zerbait berria ikasten nuen aldioro soinuan nola aplikatu hasten nintzen pentsatzen, burua horretara zuzentzen zen".

#### **Herrian, betiko tokian**

Larraintzartik kanpo urte batzuk bizi ondoren, Iruñean eta Frantzian, Ultzamara itzultzea erabaki zuen, eta bere proiektua han errotzea. Hain zuzen ere, familiaren etxabearen egin du tailerraren eta estudioaren obra, Eremu eta La Betty Traban bere taldeen entsegu lokala izandakoan. Talde horietan gitarra jo zuen Iñaki Larrayozek. Ez da kasualitatea, ez, musikarekin lotura duen zerbaitetan lan egin nahi izana. 2019an, gainera, Larra Bideak musika proiektua sortu eta disko bat kaleratu zuen.

#### **Eta... rec!**

Bere eskuekin egindako obra bukatu zuenerako izurritearen erdi-erdian geunden. Horregatik, tailerrean buru belarri aritu da bi urte hauetan, baina grabaketa estudioa geldirik izan du, zuzenekoak eta kultura geldoago egon den honetan. 2021ean, ordea, lehenengo taldeak jo zuen bere atea, Zugarramurdiko Kamuts taldeak. Orain, Makusai taldearen maketaren grabazioa bukatzen ari da. "Lehenengo aldia ez da erraza izaten, ez dakizu zein emaitza izanen duzun, zalantzak sortzen zaizkizu, beldurra izaten da... baina, aldi berean, ikasteko gogo handiak ditut, eta jendea pasatzen doan heinean erosoago sentitzen zara".



Iñaki Larrayoz bere tailerrean ▲



QR. Larra Soinu Tresnak,  
webgunea

## Tailerrean bi urte daramatza buru belarri, eta aurten, grabaketa estudioa jarri du martxan



### Sorkuntza

Anplifikagailuen konponketa, baxu eta gitarren ajustea eta beste hainbat motako moldaketak egin ditu, baina sorkuntzak ere badu tokia: "Prebioetan eta pedal propioetan ari naiz lanean, anplifikagailuren bat ere egin dut eta nire produktuak sortzeko grinarekin ikerketak eta probak egiten ditut. Gitarra baten prototipo batekin ere narabil buruan".

Musikari profesionalek eta soinu mundukoek jo ohi dute berarengana. Joseba Irazoki, Jonan Ordorika (Ruper Ordorikaren anaia) edo Joseba B. Lenoir ditugu Larraintzarko tailerretik pasa diren ezagunetako batzuk.



# Zorionak Zorionak !



Zorionak Urhol!



Zorionak Naroa!



Zorionak, Iker!



Zorionak Eneko!

Zoriondu zure laguna  
Pulunpen!  
pulunpe@gmail.com





### Auzako notarioak (Bengoetxea)



*Ez, zinez, ez da nolanhiko etxea* ▲

Hemengo hau dugu Auzako Bengoetxea, herriko beheitieneko etxea baita. XVII. mendearen hasieran bertako jabeak **Bengoetxea** zuten deitura. Aurki etxearen izenetik etorriko zitzaien, garai haietan ohitura handia baitzen etxearen izenetik deitura hartzea. Ondoren Beratsain, Zenotz eta Larunbe deiturak etorriko ziren.

#### Notario edo eskirauak

Etxe honetako arrazatik notario franko atera izan da, baina hemen lanean ari izan zirenak bi izan dira: lehena Vicente Larunbe Etxaleku, Alkozko **Matxindronetik** ezkontzaz etorria 1759. urtean, ber tako alaba zen Graciosa Zenotz Etulainekin esposatzeko.

Vicente, notario, 1758 eta 1786. urte bitartean izan zen. Gero, bere seme Marcos Larunbe Zenotz izan zen. Hau ere luze izan zen Notario (1788-1826)

Eta Marcosek sei seme-alaba izan eta testamenturik gabe hil ondoren, honen andreak, Francisca Iturraldek, alaba bat egin zuen etxerako, Maria Angela Larunbe Iturralde, eta Altsasuko notario batekin ezkondu zen edo hobeki esan, zuten, Fernando Albizu Lezearekin 1827an. Baina, zoritxarrez, laster alargundu zen, 1832 hil baitzen Albizu altsasuarra.

Etxe honetan politika asko izan da. Marcos bera frantsesen kontrako gerra pasa ondoren estu hartu zuten, frantsesen alde ibili zela eta. Libre atera zen.

Gehiago jakin nahi duenak entzun beza horretarako egin dudan audioa, amezti.eus-en aurkituko du edo telefono mugikorrarekin Pulunpen bertan QR delakoa klikatuta.



*Untzak hartzen ari da. Laster fatxada guziaz jabetuko da* ▲



Auzako notarioez gehiago jakin nahi duenak audioa entzun dezake (amezti.eus-en ere jarri dugu)

## Etxeaz hitz pare bat

Noiz egin zen horrelako etxe gaitza ez dakigu, etxaurrean behintzat ez zuten jarri. Hala ere, noiztsu egin zen badakigu eta zergatik egin ahal izan zuten horrelako etxe handi eta ederra ere bai.

Alkozko **Matxindroneko** Vicente Larunbe ezkontzaz 1759an etorri zenean egin zuten eskrituran garbi jartzen du. Etxekoandre gaztearen osaba ikasketa handikoa izaki eta Apezpikutegian aritu zen lanean eta dirutza egin zuen. Juan Zenotz zen hau, eta bertan jartzen duenez, Loberako (**Valdonsellan** dagoen herria) edo Irunberriko Erretore karguak har zitzakeen berak nahi zuenean, kargu horiek irabaziak baitzituen. Eta ezkontzako eskritura horretan honela jartzen du Don Juanez: *ha suplado largos reales en la construccion de la expresada casa, composicion y adorno de su interior.*

Etxea egiten diru aunitz sartua zuen. Eta hori aski ez zela, andregaiari ere dote ederra eman zion ezkontzerakoan: 4.800 erreal.

Hara nola izan zen etxe zaharra bota ondoren, zimenduetatik, berri-berritatik goratu zuten etxe honen historia.

Etxe handia bezain ederra, teilatua lau isurikoa eta harri landuz ederki hornitua.

Bai herrira ematen duen etxe-aurrea eta, bai Larraintzar aldera ematen duena berdin-berdinak dira. Zein da fatxada printzipala? Hori jakiteko barnetik ikusi beharko genuke etxea.

Gure alderdian bi fatxada berdin izatea ez da hain ohikoa, etxe gehienak aldapan eginak izaten dira eta fatxada berdina ezin izan. Ultzama zelaia izaki, hortaz herriren batzuk halaxe daude, zelaian, Iraizotz eta Auza, adibidez, eta bi herri hauetan ikusi izan ditugu inon baino gehiago ezaugarri hori duten etxeak. Hala ere, ez dira asko.

Etxe ederra, baina ez dator Nafarroako Palazioetako Katalogoetan eta armarririk ere ez du inon ageri.



**OHARRA:** Larunbe deitura Oskozko **Barrenetxetik** etorri zen Alkozko **Matxindronera** 1690an (Orain batzuk Ekaien etxea deitzen diote honi, gaizki)

### Hiztegia

**Mendea:** siglo

**Deitura**=abizena=apellidoa

**Aurki**=problamente (Hemen, adiera honekin ibili izan da beti hitz hau. Orain gazteek ez dakite adiera hau)

**Eskirua:** Berriki artio hitz oso ezaguna zen Nafarroan.

**Frantsesen kontrako gerra:** 1808-1814 tartean izan zena

**Etxe-aurrea**=fachada

**Apezpikutegia**=Obispado

**Erretore**=Parrokia bateko buru den apeza.

**Isuri**=vertiente

**Harri landua**=harri pikatua

**Valdonsella:** Valdonsella berez Aragoiko ibar bat da 6 bat herri dituena, baina hemen lurralde handiago batez ari gara, Iruñeko Apezpikuaren mende eta 40 herri hartzen zituenaz, alegia. 1785. urtean Iruñeko Apezpikuaren eskuetatik Jakako eta Huescako Apezpikuetara pasatu ziren.



▲ Ustez behintzat, fatxada printzipala



## Oihane Perez, Leazkueko alkate berria

Duela zazpi bat urte etorri zen bikotekidearekin Anuera, Arrotxapeatik. Olaguera alokairuko pisu batera lehenik, eta bizpahiru urtera Leazkuera. Ordura arte ezagutzen ez zuen herrian etxea erosi eta lau urte ondoren kontzejuko lehendakaria da. Iritsi zirenean hamar herritar bizi ziren Leazkuen, beraiekin hamabira igo zen, eta han jaio dira hiru urte bete berri dituen Ane eta hamar hilabeteko Irati. Beraz, hamalau herritar dira orain, Argieneako auzokideekin.

### **Kontzeju-etxea inauguratu berri duzue Leazkuen.**

Eugenio alkate ohiak jakin izan zuen dirulaguntza bat zegoela. 120 eskaeretatik 30 onartu zituzten, eta haien artean gurea. Sekulako berria izan zen ez dugulako diru asko eta laguntzarik gabe ezin dugulako gauza asko egin. Gainera, oso tarte motzean izan zen: abuztuan elkartu eta eskatuko gurela erabaki genuen, baina hilabete inguru genuen. Irailean erantzun behar zuten baina urriaren erdialdera arte ez ziguten ezer esan, eta obrak eginga egon behar zuen azaroaren bukaerarako. Tarte horretan hasi ziren prezioak igotzen, horregatik egurrak eskatu genituen dirulaguntzarik izanen genuen jakin gabe. Bizpahiru egun egon ginen horrela, jakin gabe, urduri. Eman zigutenean arnas hartu genuen. Martxoaren 12an inauguratu genuen, eta orduan egin genuen gure lehenbiziko batzarra bertan.

### **Orain arte non egiten zenituzten?**

Kontzejuko lehendakariaren etxean. Eugenioren etxean sekulako bermutak egin ditugu (barreak). Gure etxean bakarra, urria izango zen baina eguraldi ona egiten zuen eta kanpoan egin genuen, Covidarengatik ez baikenituen etxe barruan egiten, aurretik ere denbora asko eman genuen elkartu gabe.

### **Ondoren zuri egokitu zaizu alkate izatea, beraz?**

Bai, beno, hamalau herritar eta sei etxe gara osotara. Hemen normalean horrela izaten da, galdetzen da ea norbait prest dagoen, horrela denean bozkatu eta azkar onartzen da. Guk bost bat urte daramatzagu hemen, eta jada tokatzen zen (barreak). Baina gogoekin, gu beti asko mugitu gara, eta horrelako herri txiki batean erraza izaten da, elkartzen zara galdetzeko edo etxez etxe zoaz galdezka 'pentsatu dut hau edo bestea, zer iruditzen zaizue?', eta listo.

### **Kontzeju-etxea eginda, orain egiteko zerbait ba al duzue?**

Farolak ere aldatu ditugu. Bost apurtuta zeuden, eta aldatu behar genituen, ledezkoak jartzeko aprobetxatu genuen. Gero, auzolanak berreskuratzea pentsatu dugu badaudelako gauza txiki batzuk guztion artean konpondu daitezkeenak. Eta jendea gogoekin dago, guztiok esaten zuten 'bai, bai, auzolana eta gero bermut!' (barreak). Kendu genituen posteak eta alanbreak konpontzea, bideren bat ere badago garbitzeko, farolak margotzeko, horrelakoak egiteko. Poliki-poliki egiten ditugu, udan.



Oihane Perez, Ane eta Txitirekin, kontzejuetxe berria atzean ▲



## Zuek nola etorri zineten Leazkuera?

Ni Iruñeko Alde Zaharrekoa naiz eta Patxi Arrotxapekoa. Arrotxapeko pisua utzi behar genuen eta nik betidanik, txikitatik, harrizko etxe batean bizi nahi nuen. Autoa hartu genuen eta Iruñetik iparraldera zihoazen errepideetan barna joan ginen, Iruñetik ordu erdira. Herri bat ikusten genuenean gelditu eta ea etxerik alokatzen zen begiratzen genuen. Horretan ginela, jakin genuen Olaguen bizi den nire izebaren lankide batek bazuela etxe bat alokatzeko, eta hara joan ginen. Olaguen hiru urtez izan ginen eta, halako batean, farmaziakoak esan zigun hemen, Leazkuen, bazegoela etxe bat salmentan. Etxea ikustera etorri ginenean errepidetik sartu eta txundituta gelditu ginen, dena berdeberdea, etxea non zegoen ikusi eta esan genuen 'hau bai!'. Errepidea ez da entzuten, etxean sartu sentsazio berezi hori izan genuen, nahiz eta harrizkoa ez izan (barreak). Argi-argia da, eta erosi egin genuen. Argi-argia da, eta erosi egin genuen. Argi-argia da, eta erosi egin genuen. Argi-argia da, eta erosi egin genuen. Argi-argia da, eta erosi egin genuen.

## Eta, horrelako herri txiki batean, herritarrak pozik zuten etorrerarekin?

Harrera oso ona izan zen. Hiru urtetan bi etorri ginen eta orain lau gara etxean, gureak jaio aurretik June izan zen jaiotako azken haurra, eta hamabost urte ditu. Gainera, gu beti kalean izaten gara, nahiz eta euria egin. Herri batera etortzea ez da etxebizitza aldatzea bakarrik, bizimodua aldatzea da. Ez zara lagunekin tabernara horren maiz joaten, eta txikiekin ere bizitza aldatzen duzu. Baina, beno, hemengo bizimoduan sartzen saiatzen ari gara, eta Leazkuen gaudela errazago izaten ari da. Ez dakit lehen alokairuan geundelako edo zergatik zen, baina besteen sentsazioa izan zitekeen ez ginela gelditzeko etorri, orain jendea

gehiago ireki da gurekin. Egia da gu ere ez garela jende isila (barreak).

## Esan duzunez oso mugituak zarete, ezta?

Bai, ni dantzaria izan naiz eta Patxi, senarra, txalapartaria, eta beti izan gara saltsa guztietan. Patxi euskaltegian hasi zen Iruñean eta hemen ere jarraitu zuen, jo ta fuego. Orain, kontzejuan gaudela, jende gehiago ere ezagutzen dugu, gehiagotan dagokigu udaletxera

jotzea eta harreman gehiago egin ditugu, jende gehiagok ere ezagutzen gaitu.

## Iruñean egiten duzue lan?

Bai, baina bestela geroz eta gutxiago goaz, niri orain Iruñeak nekatu egiten nau. Eta Alde Zaharrekoa naiz betidanik! Alde Zaharrean barna joan eta iruditzen zait jende asko dagoela. Gurasoak ere Iruñekoak dira, aita Alde Zaharrekoa eta ama Arrosadiakoa.

## Trilladora zaharra

Kontzeju etxea egin den borda zaharra garia jotzeko makina gordetzeko egina zen. Orduan txandaka joaten ziren bakoitzaren artoa biltzen, herritar guztien artean. Oihanerekin hizketan, 67 urteko Jose Miguel Loperena Leazkueko auzokidearekin topo egin genuen: "Esne behiekin hasi zen gero, zelai asko zegoelako, eta horretara aldatu

zen. Orain gu bakarrik gelditzen gara abeltzain".

2012an herriko pestetan martxan jarri zen trilladora zaharra, 60. hamarkadakoa, eta erakustaldi bat egin zen. Herritik iaz eraman zuten. Eugeniok erosi zuen, antzinako tresnak gordetzea gustatzen zitzaiolako, baina pasa den urtean saldu egin zuen.



▲ 2012ko pestetan martxan jarri zuten erakustaldi gisa

## Nire irrintzi beldurgarria

### Herri honen eztarritik ateratako irrintzi bat. Hori da Korrika.

KORRIKAren **lekukoan** sarturik zegoen idatzian, hori da zetorren lehenbiziko lerroa. Eta irrintzi bat gehienetan alaitasun oihu ozen bat da. Oihu txintxo eta sarkor bat. Pestetan, dantzatzerakoan edo, botatzen dena. Edo karrikadantzan soinu jotzailea lagun, herria alde beste pasatzen denean. Irrintzika! Gaztetasunaren kemenaren erakusgarri eta zaharren alaiagarri!

Baita mendian urrun samarrera adiskide bati hemen gaudela azaltzeko ere: **Hemen nagok! Zer diok?**

Eta erantzun ere erantzun beharko lizuke zure lagun horrek, onik bada behintzat.

Baina gaurkoan nire irrintzi hau larritasuna, nahigabea eta beldurra azaltzeko da. Bai, beldurra, heriotzaren beldurra dut ekarri nahi gaur hona.

KORRIKAko mezu horren azken aurreko paragrafoa honako hau zen:

### Ekin euskarari, eutsi kateari!

**Eutsi kateari!!!!** Eta gurean zer ari da gertatzen? Gauza larria. Gure alderdian, zenbait herritan behintzat, badira guraso euskaldunak, batzuetan franko gainera. Bikote euskaldunak, biak euskaldunak edo bietako bat. Eta zer ari zaigu gertatzen?

la ez dut inor ikusten eta entzuten beren umeekin euskaraz. Karrikan erdara genuen aspaldian hedatua erabat. Azken 20 urte honetan gelditzen ziren 5 herriak galdu ditugu.

Eta orain etxea ere galdu dugu. Larria da egoera, oso larria, bueltarik gabekoa ia-ia.

Euskararen katea puskaturik dago, xehaturik dago, euskara azken hatsak ematen ari da gure alderdian. **Katea hautsi da.**

Hala ere,

Oraindik bagenuke esperantza gurasoek eta eskolek beren egitekoa eginen balute. Gurasoek eta eskolek, diot. Ez dago azterketa eta pitokerietan ibili beharrik. Denon aitzinean dugu gertatu dena eta gertatzen ari dena.

Mesedez, utz itzazue azterketa eta txoriburukeriak. Dena asmaturik dago, bada katea soldatzen lagunduko liguketen metodo eta jakintza aski. Baina, batez ere, zuen esku dago, guraso, irakasle eta hurbilekoen esku. Familien baitan dago etorkizuna, etorkizunik izatekotan.

Lehenik borondatea da behar dena; eta gero solastatu, jabetu gertatzen ari denaz, eta guzien gainetik, bildu, batzartu eta erabaki xingleak hartu, ez dira batere zailak. Borondate on zertxobait, eta ekin, eta euskaltzaleon laguntza ere izanen duzue.

**Aiaiaiaiaiaiaiaia...jijiji!** Irrintzi honen erantzunaren zain nago. Oraindik onik bazarete erantzunen duzue! Zuen umeen eskariari erantzun, oto! Hori nahi nuke!

Irrintzi beldurgarri hau norbaitek bota beharko zukeen aspaldian, baina isiltasuna besterik ez. Eta nik hartu dut egiteko hori, nahigabeez beterik, baina gehiago ezinez; larrialdi ikaragarrian gaude.

Ardoa erabat ospindurik dago. Bota dezagun ospina eta ekar dezagun ardo frexko berria.



### Txurdan

#### Hiztegia

- **Ozena**= argi, ongi, edo indar handiz entzuten den hotsa.
- **Sarkorra**= penetrante, gehienetan hotsez ari garenean.
- **Karrikadantza**= erronda musikarekin
- **Aldez beste**= alde batetik besteraino.
- **Mezua**=mensaje
- **Azterketa**= Zerbait edo norbait arretaz begiratu ondorioak ateratzeko.
- **Solastatu**= hitz egin, jolas egin.







## ***BRT Menditarrak taldea, pandemia aurreko egoerara bueltan***

Urte zailak izan dira azken biak alor askotan, eta baita kirolean ere. Baztango Rugby Taldearentzat, esaterako, gorabeheratsuak izan dira pandemiako garaiak. Ia bi urte eman dituzte jokatu gabe eta taldea plazaratu gabe. Epealdi txar horren ondoren, baina, badirudi normaltasunerantzko pausoak ematen hasi direla pixkanaka. Taldea ateratzeko aukera izan dute aurten, eta datorren denboraldiari begira, jokalaria gehiagoren bila ari dira. Taldeko Fermin Larralderekin hitz egin dugu

**Urte zailak izan dira azkenak, baina badirudi pixkanaka normaltasunerantz goazela, ezta?**

Bai, berriz ere normaltasunera itzultze hori izan da aurtengo gure helburu nagusia. Bi urte generamatzen jokatu eta talderik plazaratu gabe, eta aurreko udan berriz taldea plazaratzea lortu genuen. Hasiera batean senior taldea soilik atera zen, harrobiko taldeek ezin baitzuten jokatu lege batzuen ondorioz, baina urteak aurrera egin ahala talde horiek ere gehitzen joan dira. Bestetik, senior taldean urte arras positiboa izan da: bigarren euskal ligan jokatzeko genuen eta irabaztea lortu dugu bi partiduren faltan, beraz, heldu den urtean seguru aski lehenbiziko euskal ligan jokatu dugu. Urte ona izan da, pandemia aitzineko jokalaria kopurura iristea lortu baitugu.

**Datorren denboraldirako jokalaria gehiago lortze aldera, entrenamendu irekiak egiten ari zarete.**

2019-20ko denboraldia nahiko positiboa izaten ari zen, bai emaitzen aldetik eta baita taldearen hazkuntzaren aldetik ere. Baina egia da, bi urtez geldirik egon ondoren, kostatu zaigula eta ez dela hain erraza izan errekueratzeko. Aurten berriz ikusi dugu dinamika positiboan ginela hasieratik, eta hori emaitzetan ez ezik jendearen erantzunean ere ikusi da. Gurea bezalako eskualde txikietan, ordea, ez gara jende aunitz, eta beti saiatzen gara garai honetan errugbia zabaltzen eta beste jende batengana ailegatzen. Hortaz, entrenamendu hauen bidez gonbitea egiten diogu edonori, frogatu nahi dutenei edo lehendik aritu izan direnei. Ostiraletan

izanen dira entrenamenduak, 20:00etan, Lekarozen. Jokora begirakoak izanen dira, gainera, ez dugu fisiko aunitzik eginen.

**Zer behar da entrenamendu horietara hurbiltzeko?**

Gogoia eta kuriositatea besterik ez dira behar, hori da lehenbiziko gauza. Hori baden heinean nahiko dinamikoa izanen da, eta hurbiltzen denak ere geroz eta hobeki pasatuko du. Egia erran, nahiko talde lagunkoia gara, koadrila moduko bat, eta frogatu duen aunitz urteetan gelditu da gero gurekin. Hirugarren denbora ere egiten dugu, zelaitik kanpo harremanak egiteko eta sozializatzeko. Horrek ere laguntzen du taldean harreman hobe izaten.

### ***Errugbi gaupasa ere, bueltan***

Urteotako geldialdiaren ondoren, maiatzaren 21ean bueltatuko da Errugbi Gaupasa ezaguna Larrainzarra. Aldaketak izanen dira, beti egin izan den afaririk ez baita egonen, baina festa eta kontzertuak izanen dira. Berri onak kirola eta parranda uztartzea gustuko dutenendako





## Anueko zohikaztegi ezagunenak

Hainbat zohikaztegi dira Anuen, Gesaleta eta Xuriain, ezagunenak. Zer diren, zer balio duten eta bere ezaugarriak ekarri dizkigu Anuenaturak hilabete honetako kolaborazioan.

Aspaldiko garaietan, zohikaztegiak, hezegune gehienak bezala, ingurune osasungaitzak eta arriskutsuak zirela uste zen. Horregatik, drainatu eta agortu behar zirela uste zen. Gaur egun, ordea, balio handia aitortzen zaie.

2012. urtean, zenbait erkidegotako hainbat entitatek indarrak batu eta proiektu koordinatu bati ekin zioten: iparreko hezeguneak zaintzea, LIFE TREMEDAL programaren bitartez.

"TREMEDAL" hitza, eskualde batzuetan, zohikaztegiak jasotzen duten tokiko izena da. Hitzak, zohikaztegien gaintetik ibiltzean zoruak dauzkan mugimenduari eta bibrazioari egiten dio erreferentzia.

### Ezaugarriak

Zohikaztegiak baldintzak direla eta, bertan harrapatua geratzen den materia organikoak (lore-hautsa, egurra, animaliak...) denbora luzean egoera onean irauten du. Horri esker, beste garai batzuetako landarearen konposizioa eta klimaren ezaugarriak ezagutzen ahal dira.

Lur zingiratsuak edo urez aseak izaten dira eta maila freatikoa lur azaletik hurbil dute. Hezetasun handia eta ur korrontea dute.

Lurzorua azidoa da eta elikagai gutxi du, bizitzeko ongi moldatutako animaliak eta landareak aurkitzen


dira. Spagnun goroldioak, esate baterako, ura pilatzeko ahalmen handia du.

Adibide batzuk:

- Landare intsektujaleak (drosera eta muki-belarra).
- Orkideak, berriz, onddoen bitartez eskuratzen dituzte elikagaiak.
- Beste landare batzuk: heriophorum angustifolium (kotoia), narthecium ossifragum.
- Erica tetralix (ilarraka).
- Animaliak: zohikaztegi sugandila eta odonato.



Gesaletako zohikaztegia eta, atzean, Artzeki mendia ▲



Gesaletako zohikaztegia ▲



Drosera ▲



Eriophorum angustifolium ▲



## Anueko zohikaztegiak

Anuen zohikaztegi batzuk daude: Gurbaitz, Urrabia... baina ezagunenak Gesaleta eta Xuriain dira.



Urrabiako zohikaztegia ▲

## 1) Gesaleta

Gesaleta, zen bezala mantendu da orain arte, ez baitu inolako drainatzerik ezta ustiapenik izan, oso ongi kontserbatu da.

Sakontasuna: 3,45 metroko zohikatza du, eta lore-hautsaren azterketak adierazten du beste landare motak ere nagusitzen zirela: urkia, hurrondoa, hagina, haritza...

Gaur egun pagoa da nagusi, lau mila urtekoa. Orain arte uste zuten pago mota bat zegoela baina azterketak adierazi du Europa iparraldean daudenak eta hegoaldekoak ezberdinak direla.

Eremu horretan Artzeki erreka sortzen da.

## 2) Xuriain

Xuriaingoa, bestelakoa da, hezetasuna euriari eta lainoari esker mantentzen da. Lurra zohikatza da. TREMEDAL proiektuan, zenbait ekintza egin dituzte: itxidura bat, landare-sarek egindako mantak paratuz, 1.500 metro karratukoa.

Sarea jarri aurretik, lurra prestatu zen, ertzak eta harriak ahal zen neurrian kenduz.

Bi informazio-panel kokatu dituzte; bat Olaguen, ostatu ondoan, Gesaletakoa adierazteko, eta beste bat Artesiagan Xuriaingoa adierazteko.



## Anuenatura

### Hiztegia

**Lore-hauts:** polen

**Freatikoa:** ura lurazaletik gertu

biltzen denean

**Urki:** abedul

**Hurrondoa:** avellano

**Hagina:** tejo



Urrabiako zohikaztegiako landaredia ▲



## Ostiral kulturalen azken txanpa, uda baino lehen

Ostiral kulturalak azken txanpan sartuko dira eta uda aurretiko jarduerak askotarikoak eta leku ezberdinetan izanen dira (ikusbizunen ordutegiari eta lekuei adi!).

### Kontzertuak: Las Tipex eta Kutxi Romero

Hilabete musikatu eta rockero adator. Jaialdi handietakoak izaten diren kontzertu pare bat izanen ditugu. Apirilean 6an, 19:00etan, Aroztegiko Izarpe kanpian, Las Tipex taldeak joko du. Taldea 2014an sortu zen, musika eragin desberdineko zortzi emakumeren ekimenez. Emakume horiek bat egiten dute punketik hurbil dagoen proiektu komun batean, non eszenografia, musika eta interpretazioa nahasten diren, ikuskizun dibertigarri eta aldarrikatzailea sortuz. Las Tipexek hautsi egiten dituzte pertsonen bizitza mugatzen eta zailtzen dituzten estereotipo sozial batzuk. 2019ko uztailean argitaratu zuten

beren lehen albuma, "Hasta los ovarios", eta harrezkero Valentzia, Galizia, Katalunia, Euskal Herria eta beste hainbat hiritako agertokietan ibili dira. Orain, zuzenekoak eta abesti berriak uztartzen ari dira, bigarren diskoa sortzeko.

Kutxi Romero gogotsu geratu zen joan den apirilaren 1ean Larraintzarko kontzertuan Luterrekin egon ondoren, eta orain bakarka itzuliko da gure areto txiki handira. Apurka-apurka, gero eta artista ezagun gehiagok bisitatzen dute gure aretoa, eta beren kontzertu intimoen eta soinu bikainaren sekretua gordetzen

dute, Larraintzarko Benta kulto areto bihurtuz: El Drogas, La Chula Potra, Razkin, Joseba Irazoki, Luter bera... Kutxi Romero handia, zentzu guztietan, Mareako abeslaria, Pete eta Juanitorekin batera etorriko da bere bakarkako lanaren abestiekin kontzertu akustiko bat eskaintzeko. "No soy de nadie" izenburupean estatu erdia zeharkatu du inork egiten ez zuenean, pandemian, eta areto eta antzoki garrantzitsuenetako batzuk bisitatu ditu. Sarrera, beti bezala, librea izango da lekua bete arte; beraz, garaiz iristea eta sekretua gordetzen jarraitzea gomendatzen dugu. Ez kontatu inori!





## Abesbatzak: Amati eta Mirua

Maiatzaren 29an musikara itzuliko gara, oraingo honetan Iraizozko elizan, 20:00etan, bi abesbatzen emanaldiarekin. Kontzertu koral hau Iruñeko MIRUA eta gure eskualdeko AMATI abesbatzek eskainiko dute. Bi abesbatzek beren errepertorioko hainbat kantu interpretatuko dituzte eta, bukatzeko, pare bat abesti batera abestuko dituzte. Kantatzen urte gutxi eraman arren, bai MIRUAK bai AMATIK errepertorio anitza dute, eta horretaz gozatzeko aukera izango duzue maiatzaren 27an 19:30ean Iraizozko parrokiara joaten zaretenok.



## Andrés Gimenoaren pintura

Maiatzaren 20an Andrés Gimeno, hilabete honetan Gizarte Etxean ikusgai dagoen artistak, bisita gidatu bat eskainiko digu eta, gainera, bere lan metodoaren erakustaldi praktikoa egingo du, pintzelak eskuan. Hau da berak bere obrari buruz esaten duena: "Pinturen erakusketa, orain erakusten dudana, pinturak emandako urteen emaitza da, baita pinturak eragindako gar dosi handien emaitza ere, nire inguruko gauzak pintzel, arkatz edo klarionaz ahalik eta hobekien islatzeko erronka etengabearekin batera. Nire pintura ez dator bat aurrez pentsatutako estilo batekin, lan bakoitzak aztertzeko une bat eta garatzeko geroko modu bat ditu, elementu horri diodan estimazioa bezain aldakorra, baina beti bat-batekotasuna da nagusi.

## Eta ekainean...

Ekainean, berriz, mota guztietako jarduerak izanen ditugu: ipuin kontalariak, pintura tailerra, antzerkia...

Ekainaren 3an, Lanzko udaletxeko aretoan, 18:00etan Bakarne Atxukarro (kazetaria eta idazlea) euskal mitologiari buruzko ipuin

eta elezahar batzuk kontatuko dizkie haurrei, baita haien jatorria ere.

Hurrengo ostiralean, ekainaren 10ean, 17:30ean, Gaskueko Arronamendi elkartearen KIMA, Afrikako pintura tailerra izanen da: 5 eta 12 urte bitarteko

umeentzat, Afrikako kulturari buruz era dibertigarrian ikasteko eta bizitza osoan iraungo duten opariak lortzeko aukera izanen da. [liburutegia@ultzama.es](mailto:liburutegia@ultzama.es) helbidean aldeztu aurretik izena eman behar da.

Eta, bukatzeko, antzerkia, La Cartera, Axolagabe gure taldearen eskutik: oso komedia dibertigarria, axolagabeei gustatzen zaizkien horietakoa, zentzugabekeria eta korapiloz betea. Hiru emanaldi eskainiko dituzte, Larraintzako aretoan: Ekainaren 17an, 20:00etan; eta, ekainaren 18an, 17:30ean eta 20:00etan.



 **Patxi Irurzun,**  
Utzamako liburutegia

# 2022ko martxoa

## 2022ko martxoan gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

### Jaiotzak:

#### ANUE Olague

Eukene Urtasun Zilbeti, Miguel eta Mariaren alaba, martxoaren 19an sortua, **Barbazenean**.



▲ Eukene URTASUN Zilbeti Iranzu ahizparen altxoan. Aldamenean Fermin eta Miguel

#### ATETZ Egillor

Ane Oiarzun Eguarats, Miguel Angel eta Soniaren alaba, martxoaren 6an sortua.



▲ Egillorko familia osoa

#### ULTZAMA Auza

Iñigo Beratsain Jerico, Ioseba eta Mariaren alaba, martxoaren 21ean sortua.



▲ Iñigo, Auzako gazteena

### Ezkontzak:

Guk dakigula, martxoan ezkontzarik ez da izan.

“ Zorionak gurasoei ”

### Heriotzak:

#### ANUE Etsain

Francisco Arrieta Eugui, Diego Etsain aita kaputxinoa, **Martinenea-Carpintero etxekoa**, Iruñean hil zen martxoaren 28an, 98 urtetan.



▲ Patxi Kaputxinoa

“ Zure maitasuna gelditzen zaiguna ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK  
PROYKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

**KARRIKOLAR**  
ELEKTRIZITATEA



**629 31 53 32 · 722 766 835**

LIZASO · [karricolaregoitz@gmail.com](mailto:karricolaregoitz@gmail.com)

**GOTELET-A  
KENTZEA**

**FATXADAK  
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA  
(IMPERMEABILIZACIONES)**

**DAVID ELIZONDO PINTURAK**  
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA  
ETA  
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA  
KONPROMEZURIK GABE**

**678623866**

ZIAURRITZ · [argapin@hotmail.com](mailto:argapin@hotmail.com)



# ESAN ERRAN IRRATIKO PROGRAMAZIOA

## 2021-2022 denboraldia

ordua	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
07-08:30	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina		
08:30-10	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Landaberri	Goiz Kronika Osasun etxea
10-11	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Amarauna	
11-13:30	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia		
13:30-14:30	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Goizak gaur + Kirol legez	
						Bertsoinka	BerriaFm Lur eta Murmur
14:30-15:00	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Kera Deia (Zuzenean)	
15:00-16	Beste bat (Naiz irratia zuzenean)	Beste bat (Naiz irratia zuzenean)	Beste bat (Naiz irratia zuzenean)	Beste bat (Naiz irratia zuzenean)	ADI	Berandu- egi Hankak Lurrin	Soinugela
16-18	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Hiru kortxea	
18-19	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika		Erro ta berri
19-20	Gelditu makinak (Zuzenean)	Kultur kuboa	Zuria Beltzez	Global musik	Revolutio- nary grooves	Gaur Egun	Lore Hostoak (Eitb Potkast)
20-21	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz		
21-22	Barruan gaude (Eitb Podkast)	Piperpolis (Zuzenean)	Nola aldatzen diren gauzak (Zuzenean)	Klak	Zarata Zarautz	Haus of Beats	Irratiko Fikzioa
22-23		Urratsa (Eitb Podcast)	Sateliteak (Zuzenean)	Reggae Fever (Zuzenean)			
	Musika				Musika		

- ESAN ERRAN IRRATIA:** Egun Ero magazina, Egun Ero Kantuz saio berezia eta Esan Erraneko musika
- ARROSA SAREKO IRRATIAK:**  
Naiz Irratia, Xorroxin, Bilbo Hiria Irratia, Hala Bedi, Txapa Irratia, Radiokultura, 97 Irratia eta Arraio Irratia
- EUSKADI IRRATIA**
- EUSKALERRIA IRRATIA:** Metropoli Forala
- BESTEAK...:** Booktegi.eus-eko irakurketak eta Berria.eus-eko Berria FM